

BESTELAKO XEDAPENAK

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2726

AGINDUA, 2026ko maiatzaren 26koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sail-buruarena, 2026. urterako, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen oinarri arautzaileen deialdia egiten duena eta horiek onartzen dituen. Lehiatu Sustapena Programa.

Nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzei buruzkoa den irailaren 23ko 179/2014 Dekretua –«Lehiatu Sustapena Programa»– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2014ko urriaren 3an; haren bidez, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak EAetik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen erregimena ezartzen eta arautzen da. Dekretu hori onartu eta argitara emateko arrazoia nekazaritzako euskal produktuak eta elikagaiak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetara ateratzen laguntzea izan da. Nekazaritza- eta elikagai-industriaren ekoizpen- eta merkataritza-egiturek gaitasuna dute lehen sektoreko lehengaien eraldaketatik sortutako produktuak merkaturatzeko. Laguntza horien bidez, indartu egingo da onuradunek kanpoko merkatuetan egin ditzaketen sustapen-lana, bai beste merkatu batzuetara zabaltzeko, bai egun duten presentzia sendotu dadin.

Dekretu horren bidez, nekazaritza-, elikagai-, arrantza-, eta baso-sektoreetan balio erantsia sortzearen aldeko apustua egin zen, eta eragindako eremu geografikoen dinamika sozioekonomikoa indartu nahi da, bai eta Euskadiko nekazaritza-, elikagai- eta arrantza-arloan eraldatze- eta merkaturatze-industriaren lehiakortasuna sendotu ere, dirulaguntzen araubide espezifiko eta zehatz batekin, Estatu laguntzen araubide batekin. Estatu-laguntzak diren aldetik, Europar Batasunak orduan ezarritako Europar erkidegoko esparruaren mende sortu ziren, zehazki Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamenduan eta Batzordearen 2014ko ekainaren 27ko 717/2014 (EE) Erregelamenduan ezarritako esparruaren mende (1407/2013 (EE) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; 717/2014 (EE) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko arrantzaren eta akuikulturaren sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa).

Kontuan hartuta erregelamendu hori aldatu dela eta irailaren 23ko 179/2014 Dekretua indargabetuta dagoela Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen azken xedapenetako lehenengoa aplikatzearen ondorioz, sail honek beharrezkotzat jotzen du «Lehiatu Sustapena» laguntzak sustatzeko helburuarekin jarraitzea, haren oinarriak ezarriko dituen urteko deialdiaren bidez.

Deialdi hau ebazterakoan, aintzat hartuko dira administrazio publikoen dirulaguntza-jarduera arautzen duten publikitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak, betiere arau hauetan xedatutakoari jarraikiz: Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren betearazpen-erregelamendua eta laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko gainerako xedapenak. Gainera, diru-baliabide erabilgarriak agindu honetan ezarritako irizpideen arabera aplikatuko dira.

Laguntza horiek Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 2026., 2027. eta 2028. ekitaldietarako dirulaguntzen plan estrategikoan daude aurreikusita. Plan hori Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2026ko martxoaren 4ko Aginduaren bidez onartu zen. Helbide honetan dago ikusgai plana: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/elikadura-landa-garapen-nekazaritza-eta-arrantza-sailaren-dirulaguntzen-plan-estrategikoa-2026-2028/>. Zehazki, laguntza horiek eragin zuzena dute 4.4.1. helburua gauzatzen: «Nekazaritza-, elikagai- eta arrantza-industriari laguntzea»; zehazki, Euskaditik kanpoko merkatuetan sustatzen laguntzen dute nekazaritza- eta elikagai-industriak eraldatutako eta merkaturatutako nekazaritza-, arrantza- eta basogintza-produktuak.

Deialdi honek aurrekontu-zuzkidura nahikoa du, Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko ekitaldiko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legeak baimendutako kredituen arabera.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4 artikulua arabera, sailburuek, Jaurlaritzako kide gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, beren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko eskumena dute.

Hori dela bide, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen oinarri arautzaileak iragarri eta onartzea (Lehiatu Sustapena Programa) 2026. urterako; Agindu honen eranskinean jasota daude oinarriok.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.— Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.— Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 26a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.

ERANSKINA

«LEHIATU SUSTAPENA PROGRAMA 2026»:

NEKAZARITZA-, ELIKAGAI-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-PRODUKTUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK KANPOKO MERKATUETAN SUSTATZEKO LAGUNTZAK

1. oinarria.– Xedea.

1.– Oinarri hauen xedea nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen oinarri arautzaileak arautzea da 2026. urterako («Lehiatu Sustapena Programa»).

2.– Oinarri hauen arabera emango diren nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-esparruko laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa aplikatu beharko da.

3.– Oinarri hauen arabera emango diren arrantzaren eta akuikulturaren eremuei dagokien laguntzek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua arrantza- eta akuikultura-sektoreko de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Batzordearen 2014ko ekainaren 27ko 717/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako muga errespetatuko dute.

2. oinarria.– Definizioak.

Oinarri hauen ondorioetarako, honela ulertu behar dira jarraian datozen definizioak:

1.– Nekazaritza: nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza biltzen ditu, eta akuikultura berariaz sartzeko da, itsas-hazkuntzari dagokiona salbu.

2.– Elikagaiak: kontzeptu honen barnean sartzen da nekazaritza eta basogintzatik, arrantzatik, itsas-hazkuntzatik, ehizatetik eta mikologiatik edo beste jatorri natural batetik datozen produktuak ekoitzi, eraldatu, ontziratu eta merkaturatzeari dagokiona.

3.– Nekazaritza- eta elikagaigintza-enpresak: nekazaritzaren eta elikagaigintzaren esparruan jarduten duten nekazaritza-ustiategi eta enpresen multzoa.

4.– Krisian dagoen enpresa: bere finantza-baliabideak edo bere akziodunek eta hartzekodunek emandako baliabideak erabiliz galerak kitatzeko gai ez den enpresa, betiere galera horien ondorioz, kanpoko esku-hartzerik ez badago, enpresaren desagertze ekonomikoa ia segurua bada epe laburrean edo ertainean; hori guztia krisialdian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko 2004/C 244/02 Zuzentarauaren 2.1 apartatuetan edo hura ordezkatzeko duen arauan aurreikusitako irismenarekin.

5.– Enpresa handia: ETEen kategorian sartzen ez dena, betiere aintzat hartuta Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioa, mikroenpresen eta, enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoa, edo hori ordeztzen edo aldatzen duten xedapenak.

6.– Nekazaritza- eta elikagai-industria: nekazaritza-produktuak edo elikagaigintza manipulatu produktu berriak sortzeko ekipamendu-ondasunen instalazioak –behar dituzten instalazio osagarriak barne–, enpresa autonomo moduan funtzionatzeko gai direnak.

7.– Mikroenpresa eta, enpresa txiki eta ertaina: Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan edo hori ordeztzen edo aldatzen duten xedapenetan ezarritako ezaugarriak dituen

enpresa (2003/361/EE Gomendioa, mikroenpresen eta, enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzkoa).

8.– Arrantza-sektorea: Ekonomiaren sektore bat da, arrantza- eta akuikultura-produktuak ekoiztu, eraldatu eta merkaturatzeko jarduera guztiak barne hartzen dituena.

9.– Basogintza sektorea: ekonomiaren sektorea, baso-antolamenduko jarduerak eta zuraren lehen transformazioko industriak bultzatzeko eta sustatzeko jarduerak osatua.

3. oinarria.– Onuradunak.

1.– Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradun izan daitezke 4. oinarrian jasotako ekintza-ren bat burutzen dutenak.

2.– Nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-sektoreetakoak izango dira onuradunak, lehen transformazioa izan arte.

3.– Onuradunek talde hauetakoren batekoak izan beharko dute:

a) Jarduera nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, nortasun juridiko propioarekin; honela sailkatuko dira enpresak: mikroenpresa, enpresa txikia, ertaina eta handia.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilu Erregulatzailleak.

c) Jarduera nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen duten esportazio-partzuergoak, baldin eta baldintza hauek egiaztatzen badituzte:

1.– Nortasun juridiko propioa izan behar dute, partzuergoa osatzen duten enpresa edo entitateekiko independentea.

2.– Gutxienez hiru enpresak edo entitatek osatuak izatea.

3 – Partzuergoa osatzen duten enpresen bi herenek, gutxienez, Nekazaritza eta Elikadurako Industrien Euskadiko Erregistroan inskribatuta egon behar dute.

4. oinarria.– Onuradun izateko debekuak eta betekizun espezifikoak.

1.– Dirulaguntzen onuradun izan ahalko dira Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13. artikuluan adierazitako egoera hauetakoren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoak:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eskatzaileek, bat etorrita Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen edo dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein entitatek emandako dirulaguntzak itzultzeagatik betebeharren ordainketak egunean izatea, bat etorrita Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen edo dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da). Pertsona edo entitate eskatzaileek edo onuradunek dirulaguntzak itzultzeko betebeha-

rreren ordainketa egunean dutela onartuko da baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko edozein entitatearekin zorrik ez badute, dirulaguntzak betearazpen-aldian itzultzearekin lotuta, edo, premiamendu-bidea ezarri ezin zaien pertsona edo entitateen kasuan, borondatezko aldian ordaindu gabeko zorrik ez badute. Era berean, pertsonak edo entitateek dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean dituztela ulertuko da, zorrak zatituta edo geroratuta eta berrmatuta badaude, edo horiek bertan behera uztea erabaki bada dagokion itzulketa-ebazpenaren aurkaratzea dela-eta.

c) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuta ez egotea, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

d) Epai irmo bidez zehatuta ez egotea eta, beraz, legeetan zehaztutakoari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galdu ez izana. Zehazki, ezingo dira dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile izan sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tartean. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak eta, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

e) Pertsona fisikoa edo juridikoa, pribatua zein publikoa izan, ez egotea zehatuta Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean ezarritakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren zuzenketa-neurriak hartu eta zehapena ordaindu arte.

f) Konkurtsoaren deklarazioa eskatu ez izana, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu ez egotea, konkurtso-deklarazioa jaso ez izana, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren mende ez egotea edo desgaituta ez egotea Konkurtso Legearen testuategina onartzen duen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe dagoela.

g) Ez eragin izana Administrazioarekin egindako ezein kontraturen amaiera irmoa, kausaren batean errudun deklaratu izateagatik.

h) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak ez egotea Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arazten dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bateraezintasun-erregimenetako batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

i) Ez izatea zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

j) Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota beteta izatea, edo hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri izana egiaztatuta izatea.

k) Elkarteen kasuan, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 4. artikuluko 5. eta 6. apartatueta ezarritako debekuen kausetan nahasita ez egotea. Halaber, inskripzioa egiteko administrazio-prozedura eten ez izana ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere dagokion erregistroan inskripzioa egin daitekeela dioen ebazpen judizial irmorik ematen ez den bitartean.

l) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeari atxikitako fundazioen kasuan, haien estatutuak lege horretan xedatutakora egokitu izana eta egokitutako estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan gordailutu izana.

m) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, baldin eskatzaileak Merkataritza Eragiketan Berankortasuna Ekiditeko Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio-eremuan sartutako subjektuak badira, ezingo dira onuradun izan lege horretan xedatutako ordainketa-epeak betetzen ez dituzten enpresak.

n) Otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, LGTBI-fobia egin, zirikatu edo sustatu ez izana, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatze abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 11.4 artikuluan aurreikusitako taldeen kasuan, kide guztiek bete beharko dituzte aurreko baldintzak.

2.– Horrez gain, berariazko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Diruz lagundutako gastuak Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan kokatutako establezimenduak izango dira.

b) Aurreikusi egin behar da burutu beharreko ekintzak eragin positiboa izango duela epe laburrera edo ertainera enpresaren merkaturatze-jardueran.

c) Produktuek benetako merkatua izan behar dute sustapena egin nahi den destinoan.

d) Jarduerari ekiteko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu izana, edo Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagai Industrien Erregistroan inskribatuta egotea, enpresa gisa sailkatutako onuradunen kasuan.

3.– 1. apartatua adierazitako debeku horietako ezein ez dagokiola egiaztatzeke, a) eta m) letretan ezarritakoa izan ezik, eskatzaileak erantzukizunpeko adierazpena egingo du, oinarri hauen II. eranskinean erantsitako ereduaren arabera.

4.– Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak dirulaguntza kudeatzen duen organoa den heinean, noiznahi errekeritu ahal izango du aurkez dakiola erantzukizunpeko adierazpenean jasotako eskakizunak betetzearen egiaztapenak. Halaber, entitate onuradunak eman zaion laguntza edo dirulaguntza osoa justifikatu arte gerta litekeen edozein aldaketaren berri eman beharko du.

5.– Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotako edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltua bada edo falta bada, edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, edo adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeke eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, ezin izango da diruz lagundutako jarduketarekin jarraitu egitate horiek jakiten diren unetik bertatik, haragatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, administratibo edo zibilak.

6.– 1 a) apartatuan jasotako betekizunari dagokionez, administrazio-ziurtagirien bidez egiaztatuko da betekizun hori gauzatzen dela, eta, beraz, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak zuzenean bilduko ditu dokumentu horiek organo eskudunen eskutik. Hala ere, pertsona edo entitate interesdunak uko egin ahal izango dio zuzendaritza horrek inguruabar horiek zuzenean egiaztatzeari, eta, kasu horretan, bere kabuz aurkeztu beharko ditu kasuan kasuko ziurtagiriak.

7.– 1.m) apartatuan jasotako betebeharraren kasuan, alderdi hori oinarri hauen IV. eranskinean ezarritako jarraibideen arabera beteko da.

8.– 1 a), c), i), j), l), k) eta l) apartatueta ezarritako betekizunek bere horretan jarraituko dute kasu bakoitzean zehaztutako inguruabarrek irauten duten bitartean.

9.– Halaber, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legearen 19.3 artikulua betez, ezin izango zaie ez laguntzarik ez dirulaguntzarik eman nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte edo erakundeei, baldin eta zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez badute.

10.– Zuzendaritza kudeatzailearen zerbitzu teknikoek automatikoki egiaztatuko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, baita NANA ere. Hala ere, eskatzaileak aurka egin ahal izango dio egiaztapen horri, eta, hala egiten badu, eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztu beharko du, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

11.– Eskabidearekin batera aurkeztutako memorien eta agirien azterketa teknikoaren bidez egiaztatuko dira 2. paragrafoaren a), b) eta c) letretan ezarritako betekizun espezifikoak. Bestalde, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzako teknikariek ofizioz egiaztatuko dute 2. paragrafoaren d) letra.

5. oinarria.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak:

1.– Honako jarduera hauek jaso ahal izango dituzte deialdi honetako laguntzak, eta 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira.

a) Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egingo diren lanbide-izaera duten nazioarteko azoketan edo merkataritza-lehiaketetan erakusketari gisa parte hartzea, merkataritza-jarduerak garatzeko, produktuak erakutsiz erakustoki indibidual edo partekatuetan.

b) Azoketara joatea, hau da, eskatzaileak edo enpresa eskatzaileak bisitaldiak egitea profesionalen zuzendutako nazioarteko azoketara, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo.

c) Zuzeneko misioak egitea eta atzerriko merkatuetan produktuak aurkeztea; hau da, enpresa eskatzailearen produktuak aurkezteko edo dastatzeko ekintzak egitea, atzerriko merkatu horietan merkataritza-harremanak areagotzeko eta produktuaren esportazioa handiagotzeko.

d) Alderantzizko misioak egitea, atzerriko erosleak edo iritzi-emaileak gonbidatzea, enpresen ekoizpen-establezimenduetan bisitaldiak egin ditzaten; Euskal Autonomia Erkidegoan bakanrik egingo dira bisitaldi horiek.

e) Estatutik kanpoko merkatuetako salmenta-puntuetan eskusiboki sustapen-jarduera zehatz eta espezifikoak egitea, deialdiaren urtean zehar gauzatu; hau da, produktuaren publizitatea egitea eta hura dastatzeko aukera ematea, kontsumitzailearen oniritzia lortzeko.

f) Katalogoak, ikus-entzunezko materialak, web-orriak eta publizitatea komunikabideetan; hau da, enpresaren irudiari eta produktuei buruzko dibulgazio-materialak egitea, gutxienez atzerriko hizkuntza batean.

2.– Ez da dirulaguntzarik emango azoketan parte hartzeko, baldin eta azoka horietan erakustoki bat jarri badu Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, edo Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberek, edo kanpoko merkatuan enpresei laguntza finantzarioa ematen dieten antzeko organismoek, eta EAEko enpresei azoka horietan parte hartzeko tokia eskaini bazaie. Hala ere, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte aipatutako entitateei azoketan tokia eskatu baina baiezko erantzunik jaso ez duten enpresek. Kanpoan utziko dira dagokion azokan parte hartzeari lotutako diruz lagundu daitezkeen gastu guztiak.

6. oinarria.– Diruz lagun daitezkeen kostuak.

5. oinarrian aurreikusitako jardueren kostuak, diruz lagungarriak direnak, Nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzaren gastuak kudeatzeko eta justifikatzeko Eskuliburuan espezifikatzen eta zehazten dira; eskuliburua oinarri hauen I. eranskinean dago eta gastu hauei buruzkoa da:

a) Bidaia-, mantenu- eta ostatu-gastuak, hauetan bertaratzeko eta parte hartzeko: azokak, zuzeneko misioak, produktu-aurkezpenak, alderantzizko misioak eta salmenta-puntuak.

b) Azoketan, erakusketari gisa parte hartzeak edo azoketara joateak eragindako gastuak.

c) Aretoak eta ikus-entzunezko baliabideak alokatzeko gastuak.

d) Salmenta-puntuetan, alderantzizko misioetan edo produktu-aurkezpenetan egindako sustapen-lanaren gastuak.

e) Katalogoak, ikus-entzunezko materialak eta web-orriak egiteko gastuak, atzerriko hizkuntza batean gutxienez.

7. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea, eskabide-eredua eta dokumentazioa.

1.– Hilabeteko epea egongo da, 2026ko laguntza-deialdi honetarako eskabideak aurkezteko, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2.– Oinarri hauen II. eranskinean dago jasota laguntza hau eskatzeko inprimakiaren edukia.

3.– Eskatzaileek, laguntza-eskabidearekin batera, III. eranskinean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Bete beharreko «Fitxa-Txosten» ereduak oinarri honen 6. apartatuan adierazitako webgunean daude jasota.

4.– Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu daiteke erabilgarri dagoen zerbitzuaren bidez, baita egoitza elektronikoan ere, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta aurkeztuko dira eskaerak, hurrengo apartatuan adierazten diren helbideetan.

6.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak nola izapidetu jakiteko xehetasunak helbide hauetan eskuratu daitezke:

– Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/servicios/0082216>

– Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0082216>

7.– Eskaeraren osteko izapideak, jakinarazpenak barne, honen bidez egingo dira:

– Gaztelaniaz: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>

– Euskaraz: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

8.– Helbide honetan zehazten da zein diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

9.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, ordezkaritza egiaztatu beharko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Ildo horretan, eta oinarri hauen esparruan, ordezkaritza egiaztatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ordezkarien erregistro elektronikoa inskribatuta badago (<https://www.euskadi.eus/ahaldearen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>). Ordezkaritza erregistro horretan inskribatuta ez badago, ordezkaritza egiaztatzeke, borondatezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatua bete behar da (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurkitze/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutan egiaztatu beharko da.

10.– Prozeduraren eskuliburua onartzen da, zeina eskuragarri egongo baita <https://www.euskadi.eus> web-orrian eta argitara ematen baita oinarri hauen I. eranskinean.

11.– ETEek beren izaera egiaztatu beharko dute, agiri hauek aurkeztuta:

a) Pertsona fisikoaren kasuan: pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kopia, ekonomia-jardueren eranskinarekin batera, eskaera aurkeztu aurreko ekitaldikoa.

b) Pertsona juridikoaren kasuan: sozietateen gaineko zergaren kopia bat, eskabidea aurkeztu aurreko ekitaldikoa. Agiri horri, adierazpen bat erantsi beharko diote, dokumentazioak erakusten duen egoerak bere horretan segitzen duela dioena.

12.– Eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatu denean eta eskatzaileak espresuki deklaritzen badu dokumentu horietan ez dela aldaketarik egin, aurkeztutak joko dira, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoarekin. Eskatzaileak adierazi beharko du zein administrazioan aurkeztu diren eta zein unetan aurkeztu diren. Hala eta guztiz ere, eskatzaileak modu arrazoituan uka dezake baimen hori, eta, hala egiten badu, dagokion ziurtagiria edo eskatutako agiria aurkeztu beharko du.

13.– Nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dira laguntza-eskaera eta eskatutako dokumentazioa. Gainera, laguntzen eskaeraren ondoriozko jardueretan eta prozedura osoan zehar, entitate eskatzaileak aurkeztu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearen arabera.

8. oinarria.– Aurrekontu-zuzkidura.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren konturako aurrekontu-kredituak, deialdi honetara bideratuta, seihun eta hirurogei eta hamazazpi mila (670.000) eurokoak dira.

2.– Emango diren laguntzen zenbateko guztia ezingo da izan baliabide horiek baino handiagoa edo haien eguneratzearen ondoriozko zenbatekoa baino handiagoa, indarrean dagoen legedia betez aurrekontu-aldaketak onartzen diren kasuetan. Aurrekontu-gehiak hori gertatuz gero

–hasieran aurreikusitako kopurua % 40 handitu ahal izango da gehienez– deialdiaren ebazpena eman baino lehen, eta horren berri emango da Elikadura eta Landa Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bitartez, baina horrek ez du esan nahiko eskaera berriak aurkezteko epea irekiko denik, ez eta ebazteko epearen beste zenbaketa bat hasiko denik ere.

9. oinarria.– Onuradun bakoitzari gehienez emango zaion laguntzaren zenbatekoa.

1.– Proiektu bakoitzari emango zaion zuzeneko laguntza honela ordainduko da, betiere diruz laguntzeko moduko gastuak oinarri hartuta:

a) Laguntzaren % 50, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

1.– 3. oinarriaren 3. paragrafoan aurreikusitako onuradunen batek eginak izan behar dira diruz lagundutako jarduerak, salbu eta enpresa handi gisa sailkatuta badaude, Euskal Autonomia Erkidegoko kalitate- eta jatorri-ikurrak dituzten produktuak sustatzen dituen jarduera baten bidez.

2.– 3. oinarriaren 3. paragrafoan aurreikusitako onuradunen batek eginak izan behar dira diruz lagundutako jarduerak, salbu eta enpresa handi gisa sailkatuta badaude, sustapen-programa baten bidez, eta produktuen lehengaiaren % 70ek jatorria Euskal Autonomia Erkidegoan izan behar du.

b) Laguntzaren % 30, gainerako kasu guztietan.

2.– Jarduera bakoitzeko diruz lagundu daitekeen gastuaren muga 10.000 eurokoa izango da eta onuradun bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 50.000 eurokoa.

3.– Nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-esparruko laguntzen kasuan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen (EB) 2023/2831 Erregelamendua-
ren araubidean ezarritako laguntzen gehieneko zenbatekoak errespetatu beharko dira. Araubide horren arabera, estatu kide batek enpresa jakin bati emango dion *minimis* laguntzen zenbatekoa gehienez ere 300.000 eurokoa izango da hiru urteko edozein alditan.

4.– Arrantzaren eta akuikulturaren arloko laguntzetan, 2023/2391 (EB) Erregelamenduak aldatzen duen 717/2014 (EB) Erregelamendua ezarritako muga errespetatuko da, hain zuzen ere, 40 000 euroko gehieneko muga ezartzen du hiru zerga-ekitaldiko edozein alditan.

10. oinarria.– Laguntzen organo kudeatzailea eta laguntzak emateko prozedura.

1.– Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko zuzendariari dagokio prozedura hau kudeatzea. Horretaz gain, txosten bat egin beharko du, jasota utziz eskura duen informaziotik ondorioztatzen dela onuradunek laguntzak eskuratzeko behar diren eskakizun guztiak betetzen dituztela. Txosten hori ebazteko eskumena duen organoari helaraziko zaio.

2.– Deialdi hau lehiaketaz besteko norgehiagoka-prozeduraren bidez ebatziko da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera; prozedura horretan, aurkeztutako eskabideak batera aztertu edo haztatuko dira.

3.– Aurkeztutako jarduketa-proiektu bakoitzari emango zaion laguntzaren hasierako zenbatekoa kalkulatzeko, 9. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da. Urteko deialdiko diru-dotazioa aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulatzeko zenbatekoei erantzuteko adinakoa bada, laguntzak kalkulu horren arabera emango dira.

4.– Esleitutako zuzkidura ez bada nahikoa hasieran kalkulaturako zenbatekoei erantzuteko, dirulaguntza hainbanatu egingo da izandako zenbatekoen onuradunen artean, aurrekontu-estaldura nahikoa izan arte.

11. oinarria.– Balorazio Batzordea.

1.– Eskabideak haztatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da, eta Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko hiru kidek osatuko dute, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzako teknikarien artetik aukeratuko direnak. Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko zuzendariaren ebazpenaren bidez gauzatuko da izendapena, baita nor izango den idazkaria eta nor batzordeburua ere; batzordea osatzen duten pertsona guztientzako ordezkioak ere izendatuko dira, Zuzendaritza horretako teknikarien artetik hautatuko dituzte pertsona horiek.

2.– Ebazpen hori banan-banan jakinaraziko zaio laguntzaren eskatzaile bakoitzari, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> helbidearen bidez, lehenengo bilera egin aurretik, bilera egin baino bost egun lehenago gutxienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan jasotako abstenitzeko eta errekusatzeko eskubideak baliatzen direla bermatzeko.

3.– Balorazio Batzordeak, dagozkion eginkizunak betetzearren, aztergai den gaiko adituak bilertara bertaratu daitezela eskatu ahalko du, baita aholku eman dezatela ere. Batzorde horren jardunean, behar diren neurriak hartuko dira eskaeren balorazioan parte hartzen duten pertsona guztien interes-gatazkak saihesteko.

4.– Balorazio Batzordeak txosten bat egingo du, eta, bertan, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko da.

5.– Batzordeak funtzionamendu-arau propioak ezarri ahalko ditu. Arau horiek aurreikusten ez dituzten gaiei dagokienez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 18.era arteko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

12. oinarria.– Behin-behineko ebazpen-proposamena.

1.– Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, Elikagaien Kalitate eta Sustapenerako zuzendariak behar bezala arrazoitutako behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, eta, bertan, dirulaguntza zein erakunde eskatzailerentzat ematea proposatzen den, horren zenbatekoa eta norentzat den ezesteko proposamena adieraziko da.

Gainera, dirulaguntzak emateko espedientean organo kudeatzaile horren txostena egongo da, eta txosten horretan jasota geratuko da organo kudeatzailearen esku dagoen informazioaren araberako onuradunek betekizun guztiak betetzen dituztela dirulaguntzak jasotzeko.

2.– Prozeduran interesdunek adierazitakoez bestelako egitateak, alegazioak eta frogak ageri badira edo kontuan hartzen badira, ebazpen-proposamen hori behin-behinekoa izango da, eta interesdunei jakinarazi eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek aztertuta, behin betiko ebazpen-proposamena egingo da.

3.– Entzunaldi-izapidea albo batera utz daitekeen kasuetan –ez dagoelako interesdunek adierazitakoez bestelako egitaterik, frogarik edo alegaziorik–, oinarri honen beraren 1. apartatuaren arabera emandako behin-behineko ebazpen-proposamena behin betikoa izango da, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

13. oinarria.— Prozedura ebaztea, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitatea.

1.— Elikadura eta Landa Garapeneko sailburuordeari dagokio laguntzak ebaztea, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko zuzendariak proposatuta, eta aldez aurretik txosten bat izanik, non adieraziko baita zuzendaritzaren esku dagoen informaziotik ondorioztatzen dela onuradun gisa proposatutako eskatzaileek dirulaguntzak jasotzeko behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Ebazpenak barnean hartu beharko du Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan aurreikusitakoa.

2.— Laguntzak esleitzeko ebazpenean, laguntza esleitu zaien hautagaien zerrenda identifikatuko da, baita baztertutako eskatzaileen edo enpresa eskatzaileen zerrenda ere, eta baztertzea eragin duten arrazoiak adieraziko dira.

Era berean, honako hauek jaso beharko ditu: ordainketaren xedea eta zenbatekoa, ordaintzeko modua eta epeak, justifikatzeko modua, zein xedapenetan oinarrituta eman den, eta dirulaguntza arautzen duten oinarriek eskatzen dituzten gainerako baldintzak eta betekizunak.

3.— Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi-agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikulua xedatzen duenaren arabera, gehieneko epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek administrazioaren isiltasunez ezetsitzat jo beharko dute dirulaguntza emateko eskabidea.

4.— Emateko edo ukatzeko ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta argitalpenak jakinarazpen-ondorioak izango ditu, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluari jarraikiz. Argitaratzeaz gain, interesdun bakoitzari ebazpen osoa banan-banan jakinaraziko zaio, eta kasuan kasuko pertsonari berariaz eragiten dioten alderdiak identifikatuta agertuko dira.

5.— Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearen emate- edo ukatze-ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango dio interesdunak Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo hiru hilabeteko epean, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluekin bat etorritik.

14. oinarria.— Justifikazioa eta dirulaguntzen ordainketa.

1.— Egindako gastuak justifikatzeko, oinarri hauen III. eranskinean adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da, 7. oinarriaren 6. apartatuan adierazitako webgunean eskuragarri dauden ereduak jarraituz.

2.— Egindako gastuak justifikatzeko azken eguna, beranduenez ere, 2026ko urriaren 10a izango da.

3.— Zuzenean ordainduko zaie onuradunei, justifikatu ondoren. Ez da ordainduko laguntzaren aurrerakinik.

4.— Gastua egiten ez bada edo gastua egin izana egiaztatzen duen agiririk aurkezten ez bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

15. oinarria.— Onuradunen betebeharrak.

Laguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikuluan ezarritako betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

a) Emandako laguntza onartzea. Ildo horretan, laguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunak laguntzari beren-beregi uko egiten ez badio, onartutzat joko da.

b) Dirulaguntza eman izanaren oinarrian dagoen helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo jarrera hartzea.

c) Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeari justifikatzea dirulaguntza emateko bete beharrekoa: eskakizunak eta baldintzak betetzea eta jarduera gauzatzea. Jarduera pertsonen buruzkoa bada, sexuaren arabera bereizitako datuak eman beharko dira.

d) Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetzaren, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzaren eta Europar Batasunaren esku jartzea inbertsioa edo gastuak egin direla frogatzeko behar diren agiri guztiak.

e) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, oinarri hauen kontura jasotako laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eginkizunen barruan, eskatzen dieten informazio guztia ematea.

f) Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetzari idatziz jakinaraztea, hala badagokio, helburu bererako beste dirulaguntza eta laguntza batzuk jaso dituztela beste administrazio edo ente publiko nahiz pribatu batzuetatik, horren berri izan bezain laster, eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik edo une horretan bertan.

g) Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetzari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein inguruabar objektibo edo subjektibo aldatu dela, horren berri izan bezain laster, eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik edo une horretan bertan.

h) Egiaztatzea, emate-ebazpena proposatu baino lehen eta hura ordaintzeko unean, egunean dituela hala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak nola dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoari jarraikiz (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).

i) Merkataritza-legeriak eskatutako terminoetan, behar bezala ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak izatea, eta finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako aparteko kontabilitate-sistema bat edo kontabilitate-kode egoki bat mantentzea, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko. Onuradunaren izaera juridikoak hala eskatzen badu.

j) Jasotako dirulaguntza zertan erabili den egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapenak edo kontrolak egiteko erabil baitaitezke.

k) Gastuei eta diruz lagundutako jardueri buruz ematen den informazio edo publizitate guztian, argiki jasotzea Eusko Jaurlaritzaren funtsekin finantzatu direla jarduerok, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan xedatutarekin bat.

l) Jasotako funtsak edo gauzaturiko jarduerarako nahiz jarduketarako emandako dirulaguntza-ren kostuaren gaineko soberakina itzultzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotako kasuetan.

m) Hizkerak eta irudiek ikuspegi interseksionala errespetatzea eta, batez ere, sexu- eta genero-ikuspegia kontuan hartzea, dirulaguntza jasoko duen jarduerak edo proiektuak eskatzen dituen dokumentu eta material guztietan.

n) Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean herritarren hizkuntza-eskubideak eta, bereziki, euskararen erabilera bermatzea.

o) Enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzea, Dirulaguntzen Araudia Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan ezartzen den moduan.

p) Gainfinantzaketarik ez eragiteko konpromisoa hartzea.

q) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea.

16. oinarria.— Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.— Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira edo beste edozein administrazioetatik edo erakunde publiko nahiz pribatutatik helburu bererako beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, betiere araudi erregulatzailan ezarritako betekizunak betetzen badira eta laguntza ematea eragin zuen helburuari eusten bazaio.

Onuradunak inguruabar horiek jakinarazi beharko dizkio Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzari, horien berri izan bezain laster eta, nolanahi ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen.

2.— Dirulaguntza ematen duen organoak, ofizioz edo interesdunak eskatuta, emateko ebazpena aldatzea erabaki ahal izango du, Dirulaguntzen Araubide Juridikoaren Legearen 25. artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean, baldin eta:

a) Aldaketak ez badakar emandako dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea.

b) Oinarri erregulatzaila hauen xede edo helburuen artean egoten jarraitzea gauzatu den edo gauzatzea den jardura.

d) Onuradunaren borondateak soilik zerikusirik ez izatea aldaketa justifikatzen duten inguruabarrekin.

d) Aldaketa ez izatea hasieran onartutako proiektuaren funtsezko aldaketarik, eta ez eragitea laguntza emateko irizpide erabakigarriei.

e) Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.

3.— Era berean, proiektua gauzatzean 6. oinarrian aurreikusitako diruz laguntzeko moduko gastuaren kontzeptuen artean % 30etik gorako aurrekontu-desbideratzeak gertatzen badira kontzeptu bakoitzerako onartutako aurrekontuarekiko, onuradunak behar bezala jakinarazi eta justifikatu beharko dio inguruabar hori Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzari, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea bidezkoa den baloratzeko.

4.– Laguntza emateko onartutako eta kontuan hartutako aurrekontua baino txikiagoa bada diruz lagundutako jardueraren behin betiko kostua, dirulaguntza proportzionalki murriztuko da Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko zuzendariaren likidazio-ebazpenaren bidez; horrela, dirulaguntzaren ehunekoa benetan justifikatutako gastu-oinarri berriari aplikatuko zaio.

5.– Ebazpenaren aldaketak dirulaguntzaren zenbatekoa murriztea badakar eta onuradunak osorik edo partzialki jaso baditu onartutako zenbatekoak, bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, dagozkion interesekin batera.

6.– Dirulaguntza emateko xedea erabat betetzen ez bada, edo funtsean onartutakoaz bestelakoa den jarduera bat egiten bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galtzea ekar dezake edo, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli behar izatea.

17. oinarria.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntzaren eskatzaileak atzera egin ahalko du eskabidean, baina eskatutako laguntzak emateko prozedurako ebazpena jakinarazi baino lehen. Uko-egitea jasota uzten duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta dagozkion sinadurak baditu. Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko zuzendariak, ebazpenaren bidez, bete-betean onartuko du atzera egite hori, eta prozedura bukatutzat joko du.

2.– Laguntzaren onuradunak uko egin ahal izango dio emandako laguntzari. Uko-egitea jasota uzten duen edozein bide erabiliz egin ahal izango da, baldin eta dagozkion sinadurak baditu. Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak, ebazpenaren bidez, bete-betean onartuko du atzera egitea eta amaitutzat emango du prozedura. Behin uko-egitea onartuta, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, bai eta emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

18. oinarria.– Ez-betetzeak.

1.– Baldin eta onuradunak edo entitate onuradunak ez badu betetzen oinarrietako betebeharren bat edo dirulaguntzak ematean, hala badagokio, ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, edo dirulaguntza itzultzera behartzen duen egoeraren batean badago Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluekin bat etorriz, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordeak, ebazpen bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio (partez edo erabat) onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erki-degoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak (guztia edo zati bat, proiektuaren betetze-mailarekiko modu proportzionalean) eta dirulaguntzen arloan aplikagarriak diren berandutze-interesak, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluekin bat. Aipatutako diru-zenbateko horiek zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.– Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordea izango da organo eskuduna itzulketa-espediente abiartze eta izapidetzeko, bat etorriz Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluen 1. apartatuan adierazitako deskontzentrazioarekin.

3.– Itzultze-prozedura administrazioko arau-hauste baten ondorioa bada, eskumena duen organoari jakinaraziko zaio dagokion zehatze-prozedura hasteko.

19. oinarria.– Bateragarritasuna.

1.– Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk xede bererako emandako beste edozeinekin, betiere dirulaguntza guztien

baturak gainditzen ez baditu gehieneko laguntza-kopuruak. Muga hori gaindituz gero, programa honen babespean emandako laguntzari kenduko zaio gaindikinari dagokion zenbatekoa.

2.– Aurreko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera, oinarri hauetan aurreikusitako laguntza ezingo da bat etorri ardoa sustatzeko laguntzekin; izan ere, horiek ezartzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 58. artikulua aplikatuz – Mahastizaintzako eta ardogintzako esku-hartze sektoriala arautzen duen urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 2. artikuluan garatuta–; era berean, ezingo da bat etorri beste laguntza batzuekin, laguntza horiek espresuki hala ezartzen badute.

20. oinarria.– Datuak babestea.

Oinarri hauek aplikatuta biltzen diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta gainerako lege aplikagarrietan xedatutakoaren arabera tratatuko dira.

Datuak babesteari buruzko informazioa lortzeko, jo helbide honetara: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/>

I. ERANSKINA

NEKAZARITZA-, ELIKAGAI-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-PRODUKTUAK EAE-TIK KANPOKO MERKATUETAN SUSTATZEKO LAGUNTZAREN GASTUAK KUDEATU ETA JUSTIFIKATZEKO ESKULIBURUA

Euskal nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan egoteko erraztasunak ematea da laguntza hauen helburua. Nekazaritza- eta elikagai-industriaren ekoizpen- eta merkataritza-egiturek gaitasuna dute lehen sektoreko lehengaien eraldaketatik sortutako produktuak merkaturatzeko. Laguntza hauen bidez, indartu egingo da onuradunek kanpoko merkatuetan egiten duten sustapen-lana, bai beste merkatu batzuetara zabaldu daitezen, bai egun duten presentzia sendotu dadin.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak eskabideak izapidetzeko ardura dauka, eta, proiektuen balorazioa egiteko, balorazio-batzorde bat eratuko da. Aurkeztutako eskabideak eta agiriak aztertu ondoren, balorazio-batzordeak egindako proposamena ikusirik, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko zuzendariak emango du deialdiaren ebazpena, eta ebazpen bakar batean eskatutako laguntzak eman ala ez ebatziko du.

Neurri honetara bideratutako funtsak behar bezala kudeatzeko, funtsezkoa da laguntzaren onuradunek laguntza emateko baldintzen berri izatea, bai eta laguntzen hartzaile gisa hartzen dituzten erantzukizunak ezagutzea ere.

Dirulaguntza emanda, onuradunak bereganatu egingo du diruz lagundutako sustapen-jarduerak aurrera eramateko erantzukizuna; era berean, bere egingo du ekintza horiek egin direla eta ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzen duten frogak aurkezteko erantzukizuna. Horrela, bada, alderdi horiek behar bezala ez justifikatzeak ekintza ez egiteak dakartzan ondorio berak ekarriko ditu.

Ondoren, orientabide gisa, kasu bakoitzean aurkeztu beharreko egiaztagiria adierazi dira, laguntza jasotzen dutenei orientabideak emateko helburuarekin beren erantzukizunak bete ditzaten, diruz lagundu daitezkeen gastuak behar bezala justifikatzeko orduan.

Aukeratu daitezkeen gastu ohikoenak eta haien egiaztapena:

Gastu mota	Egiaztagiria	Egin beharreko egiaztapena	Aukeratu daitezkeen zenbatekoa
Aukeratu daitezkeen edozein sustapen-gastu fakturatu.	Emandako zerbitzuen faktura zehaztua edo, fakturan ez bada gastuen zehaztapenik azaltzen, eskainitako zerbitzuak behar bezala banakatuta agertzen diren aurrekontua.	– Jaulkitze-data. – Faktura-zenbakia. - Jaulkitzailearen eta onuradunaren izen soziala eta IFZa. – Egindako gastuen deskribapena. – Gastuen aleko zenbatekoak. – BEZaren zehaztapena.	Fakturaren zenbatekoa, BEZik gabe (Ikusi 1. oharra)
Lekualdatze nagusia; enpresaren egoitzatik sustapen-ekitaldia izango den tokiraino sartzen da (hegaldea, tren, autobusa, alokairuko kotxea, norberaren autoa, taxia eta aparkalekua, lekualdatze nagusiaren ondorioz behar direnak).	– Bidaia-agentziaren, aire-konpainiaren eta abarren faktura. – Bidaia-txartela edo hegazkineratzeko txartela. - Auto partikularren kasuan, norberak egindako gastuen kontua, gasolindegiko tiketak, autobideko tiketak eta abar aurkeztuta.	– Faktura (ikusitako fakturatutako edozein gastu). – Bidaia-aren datak, jardueraren datakin bat datozenak. – Hegazkineratzeko txartelaren datuak. Turista-klaseko txartelak bakarrik izango dira diruz laguntzekoak. – Langile propioak edo sustapen-lanetarako kontratatutako enpresako langileak bakarrik, izaera hori justifikatuta.	Txartelaren edo fakturen zenbatekoa (jaulkipen-gastuak barne). Norberaren kotxearekin egindako joan-etorrietan 0,29 euro/km ordainduko da, eta gehienez ere 50 euro.

Gastu mota	Egiaztagiriak	Egin beharreko egiaztapena	Aukeratu daitekeen zenbatekoa
Ostatua (gosaria barne).	Hotelaren/agentziaren faktura, honako hau adierazita: – Hotela. – Ostatu-hartzaileen izena. – Gela-mota. – Ostatu-erregimena. – Egonaldiaren datak. – Zenbatekoa, ostatu-hartzaile bakoitzeko. – BEZaren zehaztapena.	– Faktura (ikusi fakturatutako edozein gastu). – Egonaldiaren datak, jardueraren datarekin bat datozenak. – Langile propioak edo sustapen-lanetarako kontratatutako enpresako langileak bakarrik, izaera hori justifikatuta.	Fakturaren zenbatekoa, eta gehienez ere: – 120 euro pertsonako eta eguneko Espainian. – 180 euro pertsonako eta eguneko Espainiatik kanpo.
Mantenua (bertan sartzen dira jatekoak, tokiko garraioa, telefonoa, Internet, garbitegia, logelako edaritegia eta abar). (Dieta eskatzen bada, ezin da eskatu pertsona horren otordu kolektiboaren zenbatekoa)	– Joan-etorriko txartelak. – Egindako gastuen fakturak edo kuxako tiketak, gastuen ezaugarrien arabera. – Ekitaldiaren tokian eta programatutako egunetan bertan egon izana ziurtatzen duen beste edozein agiri. – Hala badagokio, dietak sortzen dituen pertsonak enpresarekin daukan harremana egiaztatzen duen lan-kontratua edo bestelako dokumentu bat.	– Ekintzaren egunekin bat datozen egonaldi-egunak, joan-etorriko egunak barnean direla. – Langile propioak bakarrik.	Oroharreko dieta, eta gehienez ere: – 80 euro pertsonako eta eguneko Espainian. – 90 euro pertsonako eta eguneko Espainiatik kanpo. Dietak ekintza egiteko behar den egun kopurua baino ez du hartuko.
Otordu kolektiboak, langile anfitrioi propioak barnean direla.	– Emandako zerbitzuen faktura zehaztua edo kuxako tiketa. – Parte-hartzaileen zerrenda, sustapen-jarduerarekin daukaten lotura eta bileraren helburua.	– Faktura (ikusi fakturatutako edozein gastu). – Janariaren koherentzia diruz lagundutako jarduerarekin.	Fakturaren zenbatekoa, eta gehienez ere: – 60 euro pertsonako eta eguneko Espainian. – 70 euro pertsonako eta eguneko Espainiatik kanpo.
Azoketan parte hartzearen edo azoketara joatearen ondoriozko gastuak (inskripzioa edo parte hartzeko kanona, kameren edo erakustaltzarien alokairua, kopen alokairua eta abar).	– Emandako zerbitzuen faktura zehaztua edo agiri baliokidea. – Organismo ofizialen bidez beste batzuekin elkartuta parte hartuz gero, organismo ofizialaren ziurtagiria. – Erakustokiaren argazkiak edo bideoa.	– Faktura (fakturatutako edozein gastu ikusi) edo agiri baliokidea. – Ziurtagiriaren datuak. – Erakustokiaren onespina.	Fakturaren zenbatekoa, BEZa kanpoan dela, salbu eta berreskuragarria ez bada (ikusi 1. oharra). Beste batzuekin elkartuta parte hartzen den kasuan, ordezkaritza-kanona.
Aretoen, ikus-entzunezko ekipoen eta abarren alokairua.	– Hala badagokio, alokairu-kontratua. – Eskainitako zerbitzuen faktura zehaztua.	– Kontratuaren datuak. Faktura (ikusi fakturatutako edozein gastu).	Fakturaren zenbatekoa, BEZik gabe (Ikusi 1. oharra)

Gastu mota	Egiaztagiriak	Egin beharreko egiaztapena	Aukeratu daitekeen zenbatekoa
Estatutik kanpoko merkatuetako sustapena egiteko gastuak. Kanpoan geratzen da publizitatea eta merchandisinga.	– Eskainitako zerbitzuen faktura zehaztua. – Eskaneatutako sustapen-materiala edo eginiko publizitatea. – Sustapen-jardueretarako laginik bidaliz gero, sustapen-material gisa erabilitako produktuaren produkzio-kostuaren balorazioa, produktuaren balioa egiaztatzen duten agiriak aurkeztuta; esate baterako, kontratuen edo fakturen kopiak, non pertsona edo enpresa banatzaileari zenbatean saldu zaion azaltzen den.	– Faktura (ikusi fakturatutako edozein gastu).	Sustapen-material gisa erabilitako produktuaren kostu justifikatua.
– Gutxienez atzerriko hizkuntza batean egindako katalogoak eta ikus-entzunezko materialak (katalogoak, eskuorriak, kartelak, etab.). – Web-orriak (gutxienez atzerriko hizkuntza batean).	– Eskainitako zerbitzuen faktura zehaztua. – Eskaneatutako sustapen-materiala. – Webaren esteka	– Faktura (ikusi fakturatutako edozein gastu). – Erabilitako sustapen-materialarekiko onspena.	Fakturaren zenbatekoa, BEZik gabe (Ikusi 1. oharra)

1. oharra: BEZa diruz laguntzeko moduko gastua izango da, baldin eta onuradunak ordaintzen badu eta ez bada berreskuratzea edo konpentsatzea. Horretarako, onuradunaren merkataritza-peritu batek edo legezko auditore batek egiaztatu beharko du ordaindutako zenbatekoa ez dela berreskuratu, eta gastu modura jaso dela onuradunaren kontabilitatean.

II. ERANSKINA

ESKABIDEA EGITEKO INPRIMAKIAREN EDUKIA («LEHIATU SUSTAPENA PROGRAMA»)

Oinarrizko eremuak:

- Titularra.
- Identifikazio-agiriaren mota.
- Nortasun-agiriaren zenbakia.
- Izen-abizenak eta sexua (pertsona fisikoek soilik).
- Entitatearen izena (pertsona juridikoek soilik).
- Helbidea.
- Lurraldea.
- Telefonoak, helbide elektronikoa.
- Harremanetarako pertsona.
- Legezko ordezkaria, izen-abizenak, telefonoa eta NANa.
- Jakinarazpen- eta komunikazio-kanala.
- Jakinarazpenen hizkuntza.
- Diruz lagundu daitezkeen ekintza motak.
- Sustapen-proiektua, izenburua.
- Sustapen-gastuak, BEZik gabe.

Eremu osagarriak; erantzukizunpeko adierazpenak:

☐ Egiazkoak direla eskabide honetako datu guztiak eta aurkezten dudan dokumentazioa, eta neure gain hartzen dut horrek dakarren erantzukizuna.

☐ Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aginduan ezarritako eskakizunak betetzen ditudala (agindu horren bidez, 2026. urterako, nekazaritza-, elikagai-, arrantza- eta basogintza-produktuak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko merkatuetan sustatzeko laguntzen deialdia egiten da –Lehiatu Sustapena Programa–), hori egiaztatzen duen dokumentazioa badaukadala, eta Administrazioaren eskura jarriko dudala hala eskatzen zaidanean; halaber, aurreko betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dut laguntza-eskubidea onartzeak dakarren aldi osoan.

☐ Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuta ez egotea, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

□ Ez egin izana konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaririk, ez egotea kaudimengabetzat deklaratura ezein prozeduratan, ez egotea konkurtsoan deklaratura, konkurtso horretan hitzarmen bat indarrean jarri bada salbu, eta ez egotea epailearen esku-hartzearen mende edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituta, konkurtsoa sailkatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldia oraindik amaitu gabe egonik.

□ Ez duela eragin Administrazioarekin egindako ezein kontraturen amaiera irmoa, kausaren batean errudun deklaratura izateagatik.

□ Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez egotea Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bataerazintasun-erregimenetako batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

□ Egoitza fiskala ez edukitzea paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean.

□ Egunean edukitzea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera (agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa da).

□ Ez edukitzea dirulaguntzak jasotzea galarazten dion zehapen-ebazpen irmorik, betiere bat etorritz lege honekin edo halakorik ezartzen duten beste batzuekin. Zehazki, ezingo dira onuradun izan sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan.

□ Ez urratzea Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izateko betebeharra, bai eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezartzekoa ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Estatuko legeriak ezarritako baldintzetan, 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan.

□ Elkarteen kasuan, elkarte ordezkaria ez egotea nahasita Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 5. eta 6. paragrafoetan ezarritako debekuen kausetan.

□ Elkarteen kasuan, etenda ez egotea entitate ordezkatuaren inskripzioa egiteko administrazio-prozedura, ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, betiere dagokion erregistroan inskripzioa egin daitekeela dioen ebazpen judizial irmorik ematen ez den bitartean.

□ LGTBfobiaz jokatu ez izana, edo hura bultzatu edo sustatu ez izana, konbertsio-terapiak sustatzea edo egitea barne.

□ Ez egotea zigortuta Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik, administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez, zuzenketa-neurri egokiak hartu eta zehapena ordaindu arte.

□ Hala badagokio, desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete izana, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

☐ Fundazioen kasuan, estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean xedatutakora egokitu dituela, eta egokitutako estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan gordailutu dituela.

☐ Ez edukitzea enpresa-deslokalizazioaren deklaraziorik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 51. artikuluan ezarritakoaren arabera.

☐ Eskatutako laguntza jarduera berberetarako onartuta edo ordainduta dauden beste batzuekin bateragarria izatea baimenduta egonik, gainfinantzaketarik ez izatea. Nolanahi ere, etorkizunean helburu bererako jasotzen dituenak jakinarazi beharko ditu, laguntza likidatu arteko aldian.

☐ Aurreko hiru ekitaldietan jasotako minimis laguntzen zenbateko osoak ez duela 300.000 euroko muga gainditzen laguntza hau eman aurreko hiru urteetan –muga hori Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan dago jasota, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoan–, ezta gainerako arauetan minimis mekanismo horretarako berariaz ezarritako beste muga batzuk ere.

☐ Pertsona edo entitate eskatzailea ez egotea laguntzak berreskuratzeko agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat lege kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

Enpresa mota: markatu dagokiona:

☐ Enpresa EZ dela enpresa txikia edo ertaina, bat etorritik Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin.

☐ Enpresa txikia edo ertaina dela enpresa, Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioarekin bat etorritik.

Enpresaren kategoria: markatu dagokiona:

☐ ETE-mikroenpresa (10 enplegu baino gutxiago; 2 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

☐ ETE-enpresa txikia (50 enplegu baino gutxiago; 10 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

☐ ETE-enpresa ertaina (250 enplegu baino gutxiago; 43 milioi eurotik beherako urteko negozio-bolumena edo balantze orokorra).

☐ Ez dela aldatu enpresaren kategoria, Sozietateen gaineko Zergan edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan islatzen dena.

☐ Eskaera Aurkeztu duela/Ez DUELA aurkeztu, edo laguntza jaso duela proiektu honetarako, gaurko egunera arte, behean ageri diren erakunde publiko edo pribatuetan; eta konpromisoa hartzen duela aurrerantzean ere proiektu honetarako aurkeztu dituen laguntza-eskabide guztien berri emateko:

Eskaera-data	Instituzioa	Programa	Eskatutako zenbatekoa	Emandako laguntza	Minimis moduan zenbatzen da (Bai/Ez)

Enpresaren datuak:

- Zerga-egoitza.
- Jarduera nagusia (nekazaritza, elikagaigintza, arrantza edo basogintza), eta lortutako produktu nagusiak zehaztuko dira.
- Erabilitako lehengaiak, Euskal Autonomia Erkidegotik datozen horien ehunekoa zehaztuta.
- Euskal Autonomia Erkidegoko kalitate- eta jatorri-bereizgarriak dituzten produktu landuak.
- Sustatutako produktua.

Sustapen-proiektuari buruzko datuak:

- Diruz lagundu daitezkeen ekintza motak.
- Eskatutako eta egin beharreko jarduerak.
- Ikus-entzunezko katalogo eta materialak.

□ Eskabide honetako datu guztiak eta aurkezten dudan dokumentazioa egiazkoak eta osoak direla, eta neure gain hartzen dut horrek dakarren erantzukizuna.

□ Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzari baimena Ematen diot / Ez diot ematen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duten ziurtagiriak automatikoki egiazta ditzan; egiaztapen horren aurka agertuz gero, ziurtagiri horiek aurkeztu beharko dira.

Datu pertsonalak izen hau duen tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira: Elikagaien kalitate eta sustapenaren arloko laguntzak.

– Arduraduna: Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritza; Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

– Helburua: Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzaren laguntzen, beken eta I+Garen jarraipena, kontrola eta kudeaketa.

– Legitimazioa: interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzean burututako eginkizun bat betetzeko beharrezko tratamendua.

– Hartzaileak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Nekazaritza eta Arrantzako Estatistika Ofizialen Zerbitzua (SEAS). Organismo ordaintzailea.

– Eskubideak: eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea duzu gure web-orrian: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/>

– Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

III. ERANSKINA

DOKUMENTAZIOA

A) Laguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua 2. paragrafoa a), b), c) eta d) letretan adierazitako pertsonen hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Ahalordetze-eskultura.
- Entitatea eratzeko eskultura eta estatutuak, dagokien erregistroak zigilatuak.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, baimen hori berariaz ukatu bada soilik.
- Eskabidea aurkeztu den ekitaldiaren aurrekoari dagokion sozietateen gaineko zergaren kopia.

Antolakunde/talde/kooperatiben kasuan, etab.:

- Bazkideen zerrenda, sexuka, boto-ehunekoarekin.
- Zuzendaritza-organoaren osaera, sexuka, boto-ehunekoarekin.

Pertsona fisikoen kasuan:

- NANaren kopia, soilik baimenari espresuki uko egin bazaio.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria, baimen hori berariaz ukatu bada soilik.
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kopia, eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiarena.
- Eskaera aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiari dagokion ekonomia-jardueren eranskina.

Eskatzaile guztientzat:

- Ez badu Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarik jaso azken 5 urteetan, hirugarrenaren altaren agiria.
- Eskatutako jarduera bakoitzaren «fitxa-txostenak» betetzea, laguntza honen webgunean eskuragarri dauden ereduaren arabera.
- ETEa dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Edonola ere, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak beharrezkoak iruditzen zaizkion agiriak eta informazio osagarriak eska diezazkioke eskatzaileari edo enpresa eskatzaileari, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko.

B) Ordainketa-eskabidean egikaritutako gastua justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- «Excel» fitxategi bat jardueren arabera sailkatutako fakturen datuekin, laguntza honen webgunean eskuragarri dagoen ereduarekin bat.

- Pdf fitxategi bat egindako sustapen-jarduera bakoitzerako, honako hauek jasoko dituenak:
 - Egindako jarduera bakoitza justifikatzeko «fitxa-txosten» bat, laguntza honen webgunean eskuragarri dauden ereduak arabera.
 - Jarduera justifikatzeko, egin diren gastuen fakturak eta ordainagiriak:
 - Ordainketa-agiria faktura bakoitzari atxikita egon beharko da beti.
 - Ordainketa dibisetan eginez gero, justifikazio-agirian zehaztu beharko da kanbio-tasa.
 - Hegaldietan, hegazkineratzeko txartelak honela aurkeztu beharko dira: faktura + ordainketa-egiaztagiria + hegazkineratzeko txartela. * Hegaldien ordena kronologikoaren arabera eskaneatu behar dira hegazkineratzeko txartelak.
 - Diruz lagundu daitezkeen jarduerak gauzatu izanaren egiaztagiri osagarriak: bileren agenda, material grafikoa eta argazkiak, prentsa-oharrak, dastaketa-koadernoak, eskuorriak edo kartelak, bezeroekin, banatzaileekin edo inportatzaileekin izandako posta-trukea eta abar.
 - Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorraren 72. eta 73. artikuluetan ezarritakoa bete beharko dute fakturak.
 - Edonola ere, Elikagaien Kalitate eta Sustapeneko Zuzendaritzak beharrezkoak iruditzen zaizkion agiriak eta informazio osagarriak eska diezazkioke eskatzaileari edo enpresa eskatzaileari, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko.

IV. ERANSKINA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis artikuluan ezarritako ordainketa-epeak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa (Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.5 artikulua igortzen du hara)

Onuradunaren izaera lortzeko, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatzen zaien pertsona fisikoek eta juridikoek (zuzenbide publikoko entitateak ez beste guztiek), irabazi-asmoa duten heinean, egiaztatu egin beharko dute betetzen dituztela lege horretan ezartzen diren ordainketa-epeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 bis apartatuan xedatutakoaren arabera.

Betetze-maila egiaztatzeko, frogagiri hauek aurkeztu ahal izango dira:

a) Kontabilitateko araudiaren arabera galeren eta irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen betetze-mailara iritsi direla adierazten duen ziurtagiria aurkez dezakete, ordezkaritza-ahal nahikoa daukan administrazio-organoak edo haren baliokideak sinatuta.

Horrez gainera, b) letran ezartzen diren frogabideak ere erabil ditzakete hori egiaztatzeko, beren araudiari jarraituz.

b) Kontabilitateko araudiaren arabera, galeren eta irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoek honako agiri hauetako bat aurkeztu ahal izango dute:

1.– Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditoreak emandako ziurtagiria, ikuskatutako azken urteko kontuen memorian deskribatutako ordainketen arloko informazioaren transkripzio banakatua jasotzen duena, baldin kontu horietatik ondorioztatzen bada abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen betetze-maila lortu dela, apartatu honetan zehaztutakoa, abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eskatutako informazioa kontuan hartuta.

Ziurtagiri horrek balioa izango du hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte.

2.– Aurreko zenbakian aipatzen den ziurtagiria ezin bada egin, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoen auditore batek egindako «Prozedura Adostuei buruzko Txostena», zeinaren bidez, erreferentziako data batean sozietatearen hornitzaileei ordaindu gabe dauden fakturen lagin adierazgarrian oinarrituta, ondorioztatzen baita abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdiak bete direla, inolako salbuespenik gabe, edo, salbuespenak antzemanaz gero, apartatu honen azken paragrafoan eskatzen den betetze-mailara iristea ez dutela eragozten.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren ondorioetarako, ordainketa-epeak betetzeko baldintza bete dela ondorioztatuko da, baldin eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epealdien betetze-maila Enpresen sorkuntzari eta hazkundeari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) letraren bigarren apartatuan ezartzen den ehunekoa bada gutxienez.